

{/} **Kaixo**  
**mundua**  
**.eus**

**2**  
**-**

**Webgunea**  
**zergatik eta nola**

# ZERGATIK WEBGUNE BAT?

## Galdera hau egiten denean, beste hainbat galderak joan behar dute atzetik.

- Identitate digitala lantzen al duzue?
- Datuen kudeaketa nola egiten dute gazteek?
- Berdina al da sare sozialak egitea edo web bat egitea?
- Gure identitate digitala, gure pertsonaren isla digitala izango da. Beraz, joango al zinateke supermerkatuak pijaman?
- Bizitza errealean zarenaren eta zure mundu digitalean zarenaren artean desberdintasun asko daude?
- Nolakoa da zure identitate digitala?
- Nolakoa nahi duzu izatea?

Sare sozialak, jende artean konexio desberdinak egiten dituzten sareak dira, baina horrez gain, gure identitate digitalean faktore gehiago sartzen dira jokoan.

- Bilatu al duzue inoiz zuen izena Googlen?
- Zer agertzen da?
- Nondik dator informazio hori guztia? Ze iturrik jarri du Interneten? Denak ez dira zureak, ezta?

## Pentsatzeko irizpide batzuk:

- Zer diogun eta elkarbanatzen dugun.
- Zer ez dugun esaten: isiltzen ditugun gauzek asko esaten dute, hau da, lagun baten urtebetetzea izanda ez zorientzea, etab...
- Zelan esaten dugun, estiloa, lengoia (hitz gogorrekin, emotikonoekin, laburtuta...), eta ortografia ere bai.
- Ze irudi, traol, bideo edo emotikonorekin batera elkarbanatzen duzun. Nahiz eta zure edukia ez izan, elkarbanatzerakoan zelan egiten duzun. Denak hitz egiten du zuri buruz.
- Zer pribatutasunekin publikatzen duzue? Edonorentzat? Lagunentzat? Lagunen lagunentzat? Informazio horrek asko esaten du.
- Nori edo zerri erantzuten diozun, eta zeri ez.



### Gehiago jakiteko...

> [https://labur.eus/amazing\\_mind](https://labur.eus/amazing_mind)



### Gehiago jakiteko...

> [https://labur.eus/mep\\_pasas\\_la\\_sal](https://labur.eus/mep_pasas_la_sal)



Jada, betiko tresna moduan hartzen ditugun whatsapp, facebook eta instagram sare sozialak, ez dira hain aspaldidanik egon gure bizitzan.

Bilatu noiz sortu zen whatsapp, eta pentsatu zer egingo edo nola antolatuko zenuketan asteburu bat whatsappik gabe.



**Zer diote argazki hauek pertsona hauei buruz? Egin ariketa berdina zure profilekin.**

- Zenbat mikrotaldetan zaude?
- Zenbat taldetan zaude sare sozial bakoitzean? Whatsappean? Zure lagunekin zenbat talde elkarbanatzen dituzu?
- Zauden talde guztietako jendea ezagutzen duzu?



**Kontuen datuak errepasatzen: (ARIKETA EGIN!)**

- Deskripzioa
- Profileko irudia
- Dauzkazun kontaktuak
- Zein taldetan parte hartzen duzun.
- Publikatzen dituzun gauzen frekuentzia
- Gordeta dauzkazun edukiak edo gogoko egindakoak.
- Mantentzen den pribatutasun-maila.
- Geolokalizazioa aktibatua dagoen edo ez.
- Zein aplikaziotatik eta gailutatik sartzten den.
- Nondik elkarbanatzen den.

**Mindmap bat egin zuen nahi eta behar digitalekin:**

**Erakusten saihestu**

- Zure bizitza pribatua
- Zure inguruko bizitza pribatua
- Argazki pribatuak

7

**Zaindu**

- Zure nortasun digitala
- Google-ko alertak jarri

6

**Ureztatu**

- Gogotsu mantendu
- Eguneratu sare sozial eta perfil guztiak

5



**7** keinu zure nortasun digitala zaintzeko

1

**Lurzorua prestatu**

- Argi eduki beharrekoak:
- Zure helburuak
- Zure publikoa

2

**Haziak aukeratu**

- Adibidez:
- Blog
- Twitter
- Instagram

3

**Komunikatzeko momenturik onena aukeratu**

- Egunerokotasunean
- Ebentuetan
- Oporrak

4

**Polinizatu**

- Komunikatu zure
- ideiak
- gauza interesgarriak
- egitekoak




## Ba al dakizu zer diren sare sozial bertikal eta horizontalak?

Sare sozial horizontalak, generalistak deiturikoak ere, gai definitu bat ez dutenak dira. Publiko generiko bati doaz zuzenduak eta kontaktueri bakarrik zuzentzen da. Asmo konkretu gabe, besteekin komunikatzea da helburua.

Sare sozialak espezializatzen joan dira eta horrela sortu ziren sare sozial bertikalak, non gai baten inguruan oinarritzen diren erabiltzaileak. Gauza konkretuagoen elkarbanaketarako sortuak izan ziren.

## Desberdintasunak bilatu sare sozial horizontal eta bertikal baten inguruan:



YouTube



Blogger



Delicious



Menéame



Facebook



Tuenti



Twitter



Foursquare



Flickr



MySpace



Trendation



LinkedIn



Xing



Genoom



Orain argiago duzue noraino doan datuen kudeaketa sare sozialetan. Desberdina da web batekin alderatuz, ezta?

Web batek aukera askoz ere ugariagoak ematen dizkizu eta kudeaketaren %100. **Dena den, goazen gainetik konparatzera!**

## 1. Eskura egon

### Webgunea

Lehenik eta behin, jendeak esfortzu estra bat egingo du zure orrialdera sartu dadin, hau da, zure url-a idatzi beharko du, eta, behin eta berriz sartu dadin, asko gustatuko zaion eduki bat izan behar duzu: zure edukia bilatu beharko duelako, zeren ez zaio orrialdean Facebook-en bezala agertuko.

### RRSS

Horrelako orrietan klik batera dugu edukia. Abantaila bezala ikus daiteke baina ez da guztiz egia. Gu bezalako beste hainbat daude, eta horrelako lekuek algoritmo batzuk izaten dituzte, edukia nori erakutsiko dion kudeatzen dituztenak. Baina eskuragarriago egoten da informazioa.

## 2. Argitaratzeko ahalmena

### Webgunea

Nahiz eta tresna errazak izan, formazio minimo bat beharko da erabilera on baterako.

### RRSS

Erabiltzeko oso errazak dira. Profil profesionalak, pertsonalen itxura oso antzekoa dute.

## 3. Harpidetzak eta denbora-lerroa

### Webgunea

Harpidetza eskaini ahalko zenieke notizia berriez eta eguneraketa guztiez jabetu daitezten. Beste aukera bat newsletter bat bidaltzea da.

### RRSS

Erraz aktualiza dezakezu zure informazioa, eta normalean bertan orduak sartzen dituztenek kontsumituko dute. Hauek, iruzkinak jar ditzakete, informazioa elkarbanatu edo gustatzen zaiela esan.

Desabantaila handiena da posizionamendu organikoa gero eta zailagoa dela. Batzuetan *post* batzuk ordaindu behar izaten dira zure jendearengana hel daitezten.

## 4. Etekinak

### Webgunea

Iragarkiak izan ditzakezu zure orrian AdSense moduko plataformen bitartez. Horrez gain, eCommerce bat jarri ahalko zenuke, denda horren bidez ere produktuak saltzeko.

### RRSS

Askotan, ez dago salmentarako espaziorik. Facebook-en bai, baina haien kondiziopean.

## 5. Estatistikak

### Webgunea

Orrialdeetako datuak zuretzat dira, eta zuk bakarrik ikus ditzakezu. Zure orrialdearen egoera, bisitak, saioak edo hilabeteko emaitzak zureak izango dira. Datu hauek guztiak kudeatzeko Google Analytics da tresna erabiliena, baina Wordpressentzat gauza sinpleagoak daude, Jetpack modukoak.

### RRSS

Mundu guztiak ikus dezake zenbat jarraitzaile daukazu edo ez daukazu. Zure aktibitate bera egiten dutenen artean, konparaketa arinak egin daitezke, eta ez zara guztietan garaile aterako. Horrez gain, erantzuten zenbat tardatzen duzun, datu hori ere ematen da orain, negozioaren kalifikazioa... Beraz, gero eta zailagoa egingo da.

## 6. Iruzkinak

### Webgunea

Mundu guztiak idatz dezake zure orrialdean, baina mezuak berrikus ditzakezu, zein agertuko den eta zein ez erabakitzeko. Badaude pluginak iruzkinak kudeatzeko.

### RRSS

Jendeak esaten duenaren menpe egongo zara, baina badu sistema bat iruzkin desegokiak kudeatzeko. Automatizazio honek denboraren kudeaketa hobetzen du.

**7.****Interakzioa****Webgunea**

Zaila da interakzio bat izatea web-etik, nahiz eta iruzkinak egin ahal dituzten. Normalean iruzkin hauei ez die erantzuten ekipoko inork.

Gaur egun, zuzeneko txat bat inplementa dezakezu, non bot-ak (robotak) eta langileek erantzuten duten.

**RRSS**

Jendeak zure edukia iruzkindu eta elkarbanatu dezake oso era erraz. Horrek ez du esan nahi hori egitean zure edukia irakurri dutenik. Txat bat izateak laguntzen du, eta chatbot horietako bat instalatzeko aukera ere badu.

**Ondorioak****Desberdintasun nagusiak webgune bat eta sareen artean hauek dira:**


1. Webgunearen, jabetza eta kontrol osoa duzu vs sare sozialean, bakoitzaren politikaren menpe zaude.
2. Diseinuaren kontrola vs diseinu estandarra
3. Webgunearen edukia bilatzen zaituztenek gehi harpidetza dutenek jasoko dute vs zure jarraitzaileen portzentaia batek jasoko du.
4. Ikasketa-prozesua handiagoa da webguneetan sare sozialetako plataformetan baino.
5. Monetizatzeko aukerak: webean, iragarkiak eta ecommerce, eta, sareetan, onlineko denda, asko jota.

**Informazio gehiago**

- > <https://labur.eus/nortasundigitala1>
- > <https://labur.eus/nortasundigitala2>
- > <https://labur.eus/nortasundigitala3>
- > <https://labur.eus/nortasundigitala4>

**Sare sozialak hezkuntzan**

- > <https://labur.eus/hezkuntzan>
- > <https://labur.eus/hezkuntzan2>
- > <https://labur.eus/hezkuntzan3>



## Wordpress instalatu

Orain, wordpress instalatuko dugu. Hortanako, gure dinahosting-eko kontura sartu beharko gara panel.dinahostin.com/login helbidetik.

Behin hemen gaudela, pantaila hontan, autoinstalables-i egingo diogu klik. Lehia itxiko dugu eta menu hontan wordpress aukeratuko dugu eta konfigurari egingo diogu klik. Beste lehia bat zabalduko zaigu eta hemen hutsuneak beteko ditugu. Hau da; gure proiektuaren izena sartuko dugu, erabiltzailearen izena, harremanetarako helbidea eta pasahitza aukeratuko dugu.

Behin hori eginda, aceptar-i emango diogu eta pixkatxo bat itxarongo dugu.

Gero, gure domeinua idatziko dugu goikaldean eta wordpres instalatu dela baieztatuko dugu.



## Wordpress instalatu

Bideoa ikusi

## Wordpress prestatu

Wordpressarekin hasteko, lehenik eta behin, login egiteko menura joango gara. Hortarako, gure webgune helbideari /wp-admin gehituko diogu.

Hori egin eta gero, aurreko bideoan ezarri dugun erabiltzailea eta pasahitza jarri beharko ditugu.

Behin jarri ditugunean, wordpress-eko konfigurazio pantaila agertuko zaigu.

Ezker aldean, menu garrantzitsuena izango dugu: hau da, orrialdeak, bidalketak, menuak etab. hemendik aldatuko ditugu.



## Wordpress prestatu

Bideoa ikusi



## Txantiloia aukeratu

Aurkezpena jartzen duen blokera joango gara, eta han "itxura" aukera hautatuko dugu.

Wordpress instalatzean, txantiloia batzuk ekartzen ditu defektuz. Hauek erabili ditzakegu edo gustatzen zaigun besteren bat.

Guk hartutakoa, bertan datorrena da, baina esan bezala nahi beste igo edo aukeratu daitezke.

Nabarmenduetakoetatik aukeratu ditugu, eta listo! Txantiloia gurea da.

Hemen sakatzen badugu, gure webgunea horrela ikusiko da.

Beste txantiloiren bat behar izatekotan, zuek erositakoa, instalatu sakatu, eta gero **EZ AHAZTU!!!**: Aktibatu botoiari klik egin behar zaio.

Listo! Badugu aukeratua gure txantiloia!



## Txantiloia aukeratu

Bideoa ikusi

## Wordpress pertsonalizatu

Hasteko, galdera bat egin behar diogu geure buruari: Zer nahi dugu? Blog-antzeko bat edo web-itxurako zerbait izatea?

*Settings*-en, ezarpenetan, irakurketa blokera sartuko gara. Hor, gure hasierako orrialdea zein den aukeratu dugu. Hau da, zein izango da zure hasierako orrialdea? Blog-itxura izango du edo orrialde arrunt bat izango da?

Guk orrialde estatiko bat nahi dugu. Orduan, txantiloia beti prestatua dakarren adibide-orria aukeratu dugu. Berri bat sortzen badugu, berriro ezarpenetara etorri eta aukeratu dugu. Hori bai, egindako aldaketak gorde beharko ditugu beti! Hori egin eta gero, orrialde estatikoa ezarrita geratzen da.

Goazen gehiago pertsonalizatera! Egin klik pertsonalizatu botoiari. Ikusten duzuezen izenburua aldatu ahaliko dugu, eta beste hainbat gauza: adibidez, azpтитulua.

**GOGORATU!** Beti sakatu behar dugu Argitaratu botoia dena gordetzeko. Orain bai, argitaratu geratuko da.

Atzera joango gara eta, zergatik ez? koloreak aldatu. Argia, iluna.. Horrez gain, estiloa aldatu dezakezu...

Goiburuko multimedean, argazkia aldatu daiteke, eta Youtubeko url bat sartu. Ordenagailutik igo daitezke, noski (mediatekan batzuk badaude, eta, bestela, lgo botoia sakatu, irudi berria gehituri egin klik, fitxategia eta gure irudia aukeratu) edo txantiloikoak erabili.

Ikusi duzue aldatu egin dela, ezta? Ikusten duzuen moduan geratuko litzateke. Gauza gehiago dauzkagu trasteatzeko. Begiratu!!!

Argitaratu eta itxi egingo dugu hasierara bueltatzeko.



## Wordpress pertsonalizatu

Bideoa ikusi





## Orrialdeak eta postak

### Orrialdeak

Orrialdeak kudeatzera joango gara orain.

Batzuk sortuta daude, eta erabil ditzakegu behar berdinak baditugu. Agian, ez digu ezertarako ere ez balioko.

Baloratu beharreko gauzak dira!

Orrialdeetara joango gara zer orri dauzkagun ikusteko, hemen borratu ahal ditugu edo gehiago sortu. Editatzeko hemen sakatuko dugu.

Pertsonalizatzen hasiko gara.

Ez bagaude ziur publikatu nahi dugun ala ez, Aurreikusitako aldaketak sakatzen badugu, gai izango gara ikusteko, baina ez dugu publikatua utziko.

Ikusten joaten garen heinean, diseinua gehiago gustatuko zaigu edo ez. Aurretik pentsatua bageneukan hobel!

Galeria bat ere sor dezakegu baita ere. Maius sakatu eta aukeratzeko ditugu, galeria berria sortu eta izen-oina jarri ahal diegu denei. Ondoren, Txertatu galeria sakatuko dugu, eta aldaketak aurreikusi! ONDO DAGO GUZTIA!

Hori bai, gauza gehiago aldatu daitezke, zentratu, beltzez jarri, goiburuak... Eman begirada bat!

Bigarren goiburu bat ere jar diezaiokegu.

Behin balekoa emanda, eguneratu egingo dugu argitaratzeko.

Orrialde berria egin nahi badugu, Berria gehituri egingo diogu klik.

### Postak

Bidalketak atalera joango gara, bertan baitaude lehen Post-ak. Eta zein izango da lehena? KAIXO MUNDUA! NOSKI!!! Zergatik izango da? Bila ezazue eta klasean komentatu.

Ikusi sakatzen badut, lehen post honen itxura ikusiko nuke.

Orrialde bakoitza pertsonalizatu daiteke, arkatza dagoen lekuan klik eginda.

Blog-a, gauza batzuekin dator iada, baina hauek ere pertsonalizatu ahalko ditugu. Nahi izatekotan, hor sakatuko dugu eta blog-eko orrialdea bakarrik editatuko da.

Ukitzen ibil zaitezte, dena alda dezakezue. Bigarren oina, lehenengo oina...

X-ari sakatuko diogu eta aldaketak ez dira gordeko.

Post berri bat egin nahi dugu, ezta?

Bidalketetara joango gara, post-ak bidalketak baitira.

Berria gehitu sakatu, gure bigarren post-a sortzeko, eta hemen nahi duguna azalduko dugu. Orrialde normal baten bezala geratuko zaigu, eta aurreikus dezakegu nola geratuko den. Baina post-ak bata bestearen atzetik joango dira. Argitaratu sakatu ahaztu gabe!



## Orrialdeak eta postak

Bideoa ikusi



## Menuak

Orriak ordenatzen hasiko gara, eta, horretarako, menu bat sortu behar dugu! Goazen!

Menuak editatzeko, aurkezpeneko blokean egingo dugu klik, eta menua aukeratuko dugu. Hemen sortu ditugun orrialde guztiak ikusiko ditugu ezker aldean. Baina, zer dago orrialde honetako menuan? Eskuman ikus dezakegun moduan, Hasiera, Honi buruz, Bloga eta Kontaktua, horiek daude menuan...!!!

Lehen, beste orrialde bat sortu dugu, baina ez dago menuan. Klik eginda, menura arrastatuko dugu. Behin menuan gaudela, ordena aldatu dezakegu. Eta, gainera, fitxa baten barruan sar dezakegu, atal bat izango balitz bezala. Atal berri batean sartuko dugu proba egiteko.

Oso garrantzitsua da gordetzea. Gero, webgunea eguneratzen badugu, ikusiko dugu menua aldatu egin dela.

Beraz argi eduki behar dugu diseinua!!! Horretarako, Prototipatu beharko dugu. Orrialdeen ordena eta nondik norakoa pentsatua izan behar dugu hasi baino lehenago.



**Menuak**  
Bideoa ikusi

## Plugin-ak

Esan dugun bezala, plugin-ak oso garrantzitsuak dira. Aukera paregabeak ematen dizkigute..!

Adibidez, hemen azalduko dugun pluginak, hain famatua egin den SEOa lantzeko balioko du. Orduan, pluginetara joango gara, eta berria gehitu. Egin klik Gehiago gehitu botoiari eta ikusiko duzue plugin asko datozela, gehien erabiliak, gomendioak, zer gomendatzen diguten... Denetarik izango dugu.

Guk erabiliko duguna hasteko Yoast SEO izango da. Horrek, posizionamendua gure webgunean egiten du, hau da, posizionatzen laguntzen digu.

Orduan, "Instalatu orain" sakatuko dugu, eta gogoratu oso garrantzitsua dela behin instalatzen dugunean aktibatzea behar dela. Bestela, ez zaigu aktibatuko.

Orain, orrialdeetara joaten bagara, ikusiko dugu orrialde bakoitzean -adibidez hasierako orrialdean- fitxa berri bat sartu zaigula behealdean, SEO izena duena. Horrek erakusten digu nola ikusiko den zure webgunea bilatzaileetan: titulua, azpititulua... Gainera klik eginda, gainean, nahi duguna jar dezakegu. Behean agertzen den marrak zenbat eta kolore gehiago eduki, orduan eta hobeto posizionatuta egongo da gure orrialdea.

Gainera, puntu berde bat ateratzen bazaigu SEO-aren ondoan, esan nahi du ondo egiten gabiltzala seo lana. Gorrian badago, gure hitzak aldatu eta hobetu beharko ditugu.

Azkenik, argitaratu estekari egingo diogu klik.



**Plugin-ak**  
Bideoa ikusi



## Erabiltzaileak

Azkenik, erabiltzaileak zer diren ikusiko dugu. Adibidez, zuen lan taldeetan denok nahi baduzue eduki sarrera-baimena, erabiltzaile bakoitzarentzat profil bat sor dezakegu hemen.

Bat sortuta egongo da, baina berriak gehitu ditzakegu. Hemen, erabiltzaile-izena jarriko dugu, adibidez, Lorea. Helbide elektronikoa [lorea@kaixomundua.eus](mailto:lorea@kaixomundua.eus) izango da eta azkenik bere izena ere idatziko dugu, Lorea Argarate. Webgunea ez dugu jarriko, ez du zertan eduki.

Orduan, mezu bat helduko zaio bere pasahitzarekin. Hemen zer izan nahi dugun jarri beharko dugu, hau da, zer rol izan nahi dugun. Taldeko guztiek baldin baudakazue administratzaile-kontua, hobeto, hau da, funtzio gehiago izango dituzue administratzaile moduan: bestela, editore moduan ere jar dezakezue.

Begiratu ondo, eta pentsatu bakoitzak zer rol izango duen.

Eta hemen, adibidez, SEOko pluggina jarri dugunez, kanpoko norbaiti eman ahalko genioke sarbidea, SEO rola ezarriz, eta ez zen ezer ere ez gertatuko, hau da, segurtasun horrekin lan egin dezakezu.

Administratzaile izango dela esango diogu eta aurrera. Gehitu, eta horrekin bukatua egongo litzateke.



## Erabiltzaileak

Bideoa ikusi

